



EUSKARA

GIZARTEAN EUSKARAREN ULERMENA ZABALTZEA




ZERGATIK?

Euskararen ezagutza unibertsalizatzeko bidea egitea ezinbestekoa da, euskaraz hitz egin nahi dutenek hala egin ahal izateko aukerak izan ditzaten arlo guztietan. Bide hori luzea da, baina urratsetako bat izan daiteke euskaraz ondo ulertzen ez dutenekin lanketa berezi bat egin eta inguruko euskaldunekin dinamika linguistiko jakin batzuk aktibatzea. Metodologia posible bat Ulerrizketa metodologia izan daiteke eta horren aplikazioa bultzatzea daiteke sustapen lana eginez.

NORK?

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak



ZERTARAKO?

Euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa xede izanda, Ulerrizketa metodologiaren zabalpenean eta euskaraz ondo moldatzen ez diren pertsona horiengan eragitea da helburua.

NOLA?

Berrikuntza, euskara, hizkuntzen kudeaketa eta plangintza linguistikoetan dabilzan erakundeek Ulerrizketa edota baliokidea izan daitekeen metodologia baten zabalkundea egitea proposatzen da. Zabalkunde hori egiteko kontratatutako erakundeak landa lana egin beharko du, metodologia non aplikatu daitekeen erabaki eta esku-hartzeen diseinua, aplikazioa eta jarraipena egin beharko ditu.



NON?

Bertakoa, Eskualdekoa, Lurraldekoa

NOIZ?

2022/10/10



100.000€